



## 7. BALIABIDEAK

---

### **BALIABIDE FISIKOAK:**

Lokala eta erabilitako zenbait material izango dira baliabide fisikoak, lokalean ditugun idazmahaiak, ordenagailuak, edalontziak, proiektorea eta bestelakoak.

### **BALIABIDE INTELEKTUALAK:**

Edalontziak erabiliko duen teknologiaren patentea. Honetarako, lehen aipatu dugun bezala, profesional bat kontratatuko dugu, NOSUM enpresakoa, zehazki.

### **GIZA BALIABIDEAK:**

Webgunea diseinatzeko eta programatzeko, produktuak bezeroen etxeetara banatzeko eta telefonora deituta laguntza eskainiko duten pertsonak izango dira giza baliabideak. Gainera, Pablo beste enpresekin edota adituekin dugun harremanetaz arduratuko da, hau da, beraiekin kontaktuan mantenduko da eta gure produktuen modifikazioen berri emango die. Bestetik, Libe, institutuei, tabernei eta bestelakoei gure enpresaren muinari buruz hitz egingo die eta hitzaldietan izango da, Unairekin batera, edalontziaren zehaztazun guztiak emateko. Unai web orria eta sare sozialak editatu eta gestionatuko ditu eta eguneratuta izango ditu. Horrek suposatzen du prezioak, diseinuak... etab. eguneratzea. Azkenik, Jone, bezeroen laguntzaz arduratuko da. Bezeroek arazoak izanez gero, Jone haiekin kontaktuan jarriko da laguntzeko.

### **FINANTZA BALIABIDEAK:**

Produktuaren ekoizpenerako erabilitako baliabideak edo bestelako baliabideak finantzatzeko maileguak eskatzea. Mailegua BBK bankuan eskatuko dugu.

